

IPARRAGIRRE (Jose Mari) EUSKALDUN OSPETSUAREN HERRI-MINAK *

Gure ezikera eta jakiunda, geren etxean eta etxeokekin asten dira eta azitzen, lenengoz behintzat; gero berriz, geren auzo eta inguruko lurraldean; urrea, geren herrian, ikastolan, elizan, bertako irakaslekin eta lagunekin, liburuetan, irratien bidez, e.a.

Ezikera horrek sorrerazten dizkigu gure buruzpideak, ezi-araua eta gizabidea. Giro horretan eta gai horien bidez gure nortasuna sorrerazten eta atondutzen degu. Beraz gure adimen eta bihotzak, geren sorterrri, lur eta giza-giroaren fndarrez kutsatuak dauzkagu eta behoei lotuak. Hortik aldentzea edota urrun egotea gogor, mintsu eta suminkor izaten zaigu. Hori da herrimiña eta itzulmiña.

Gure Iparragirre samurberari bihotz-ondoko horrek maiz eragiten zion.

Guda galduta, hemendik erbesteruntz irtetea, bere herri maite hontatik aldentzean, hara zer dion: «Agur, Euskalerrria / baiñan ez betiko / bost edo sei urtetan / ez det ikusiko. / Jaunari eskatzen diot / grazia emateko / nere lur maite ontan / ezurrak uzteko. / Ikusten badet ere nik mundu guzia / beti maitatuko det / Euskalerrria» (*Kantari euskalduna*).

* *Intxixu* taldearentzat egiña, 1981go garagarillaren 13n.

Geroago, Amerika'ra abiatzean, ustez eta han bizitzeko errez-
tasun geiago izanen zuela, kantuz esaten du: «Lurmaitea emen uztia
/ da negargarria. Emen gelditzen dira ama ta erria. / Urez noa
ikustera / bai mundu berria / oraintxe, bai, naizela / errukiga-
rria» (*Agur Euskal-erriari*).

Urrun delarik oroitzen da asko bere herri eta herritarrezaz.
Amerikatik Urretxu'ko semeai mintza zaie honela: «Billarreal de
Urretxu / nere erri maitea, / seme bat emen dezu / amorioz betea.
/ Nai baiña nola ikusi, / au da lan tristea, / zuretzat nai det bizi
/ Urretxu nerea. // Agur adiskideak, / ikusi artean, / zuenganatu-
tuko naiz / egunen batean. / Esperantzakin bizi / nai det bitartean».

Urteak urrun igaroarren ez da ahazten bere herriagaz —berdin
bihotzak— eta oroimenak, geldiur gabe, Euskal-herrira darama-
ki. Ikus bertso hauek: «Gazte gaztetandikan / erritik kanpora, /
estranjeri aldean / pasa det denbora. / Errialde guzietan / toki
onak ba-dira, / baiña biotzak dio: / zoaz Euskal-errira».

Bere lagun eta adiskideak buruan dabiltzki eta haiekin bere
aberria. *Bezerro-Bengoa, Arrese, Herran eta Mantele'ri* hara nola
mintza den: «Zuek bezela ditut maitatzen / Jaungoikoa eta Fue-
roak; / ay! baiña ez nau pakean uzten / lurraren amorioak. / It-
xaso aldera beti begira / zabal-zabalik begiak / o! Jaun maitea,
zer urrin dauden / Euskal-erriko mendiak».

Estualdi haundian igaro zituen urteak. Adiskide asko nun-nahi.
Bainan lasai bizi ahal izateko lain ezin bildu. Lagundu ziotenai es-
ker ona agertzen ba-zekien. Bere aberrira itzultzeko lagundu zio-
teneko bati kantuz esatan dio: «Agur, zuri, Olaso jauna, / bizkai-
tar prestu noblea; / beti betiko zure izena / biotzean det gordea.
/ Gaztetanik zait gusta biziki / mendietako aizea; / agur, banoa,
nai det ikusi / Euskal-erri maitea». (*Nere ongille maiteai*).

Amerika'tik zetorrela, Hendaya'n, eta aurrez-aurre Irun, Bi-
dasoa, Jaizkibel eta beste mendiak zituala, ikusbira unkigarri ha-
rek eragin zion, eta orduko bihozketak ernarazi kantu hau: «Ara,
nun diran mendi maiteak, / ara, nun diran zelaiak, / baserri eder
zuri-zuriak, / iturri eta ibaiak. / Irutxulueta maitagarria, / lore
tokia zu zera: / Benezia'ren grazi guziak gaur Donostia'n ba-dira».
(*Nere etorrera lur maitera*).

Bere txokora heldu zancan, lehengo itzul-miñak baretu zituan eta bere atsegiña kantuz adierazi: «O! Euskal-erri, eder maitea, / ara emen zure semea, bere lurrari mun egitera / beste gabe etorria. / Zuregatikan emango nuke / pozik, bai, nere bizia / beti zuretzat, il arteraño, / gorputz ta arima guztia». (*Nere etorrera kur maitera*).

Herrimiñ ziñezkoak gogorki eragiten zion noski; bainan itzuli zan eta lasaitu. Bizkitartean ikusbira zabalagora ere ba-zijoazten bere gogoetak. Begira zer dion: «Mundu zarrean nola berrian / izan gaitzen prestuak, / gizonarentzat egin zituan / ur eta lurrak Jainkoak. / Zabaldu beti anaitasuna, / amoriozko kantuak, / guzientzat du itzal ederra / gure arbola santuak».

Bere lurralde maite hontan bizibidea zerbait geriztatu eta ziurtu zuan eta itxaro laster bere sendiaren etorrera. Lasterrago ordea iritxi zitzaion erioa. Bakean baza atsedan.